

TASA ETA PREZIO PUBLIKOEN SALBUESPENI ETA MURRIZKETEI BURUZKO ERREGELAMENDUA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA ALDAKETA

Zerga ordenantzaren ondorengo artikulua aldatzen dira:

1. artikulua.- Xedea

Artikuluari 6. eta 7. puntuak gehitzen zaizkio, honako hau dioenak:

6.- *Ur hornidura*

7.- *Hondakinen bilketa*

2. artikulua.- Subjektu pasiboa

Artikulu hau gehitzen da eta ondorioz hurrengo artikuluen zenbakiak aldatzen dira.

1.- *Honako hauek izango dira, zergadun bezala, subjektu pasiboak: pertsona fisikoak zein juridikoak, eta Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak 35 eta 36 artikuluan aipatzen dituen entitateak, zerbitzu edo jarduerak eskatzen dituztenean edo haien onura edo eragina jasotzen dutenean.*

2.- *Zergadunaren ordezkotzat hartuko dira etxebizitza edo lokalen okupatzaileei onura edo eragina dakarkieten zerbitzu edo jarduerengatik ezarritako tasetan: higiezin horien jabeak. Horiek, hala dagokienean, onuradun desberdinei jasanarazi ahal izango dizkiete kuota.*

3. artikulua.- Baldintza orokorrak

Artikulu honen 3. puntua aldatzen da eta 9. puntua gehitzen da.

3.- *Murrizketa eta salbuespen guztiak irailaren 1etik urriaren 31 bitarte eskatu beharko dira, hurrengo urtean ondorioak izateko. Data hori gutxi beherakoa da eta urtero argitaratuko da epea. Musika Eskola Publikoa, Kultura saileko ikastaroak, udalekuak eta Haurreskolako jangela ezik, hauen murrizketa fiskala eskatzeko epea udal zerbitzuan izena emateko edo matrikulatzeko epea edo zerbitzuaren eskaera egitekoa izango da. Horretarako epe zehatzik ez badago, murrizketa fiskala udal zerbitzua hasi aurretik eskatu beharko da.*

9.- *Onuraduna alokairuan badago, ur horniduraren eta hondakinen bilketaren ordainagiriak bere titulartasuneko kontu batean helbideratu beharko ditu.*

6. Artikulua.- Diru-sarreraren arabera murrizketa fiskalak

Ondorengo salbuespena gehitzen da:

Salbuespen izango dira ur-hornidura, murrizketa hiri-lurzoruko eta landa-lurzoruko (baserrietako) etxebizitzetako 65 m³-ra arteko horniduran soilik aplikatuko baita, eta bizitegi-eremu eta landa-eremuetako hondakinen bilketa, murrizketa soilik etxebizitzetako hondakinen bilketan aplikatuko baita.

8. artikulua.- Ondare-mugak

Ondare higigarrietan kontu korronteen batzbesteko saldoa gaineratzen da:

B-2 Bizikidetzta-unitateko kontuen guztien urteko batzbesteko saldoen baturak ezingo du 30.000 euroko zenbatekoa gainditu.

12. artikulua.- Kudeaketa

Ondare-mugetan kontu korronteen batzbesteko saldoa kontutan hartuko denez NISAE elkarreragingarritasun-nodoaren bidez begiratu daitezken datuen zerrendan ondorengoa ere azaldu behar da:

-Foru Ogasunak: Kontu-mailaren kontsulta

Hernanin, 2023ko otsailaren 20ean

M. Isabel Sanchez Perez
Ogasuneko zinegotzi delegatua